


Manuel Aznar Enbajadorea, 1 – 20304 Irun (Gipuzkoa)

TEL.: 943 622 155 FAXA: 943 628 490

dunboahi@dunboahi.com

www.dunboahi.com

ESKOLA- JANGELAREN ARAUDIA



AURKIBIDEA

I.- HELBURUAK

1. *Osasunerako hezkuntza*
2. *Bizikidetzeko hezkuntza*
3. *Astialdirako hezkuntza*


II.- FUNTZIONAMENDURAKO ARAU OROKORRAK

III.- BIZIKIDETASUN-ARAUAK

1. *Higienea*
2. *Antolaketa eta portaera*
3. *Elikadura*
4. *Aisialdia*

IV.- ZUZENDU BEHAR DIREN JOKABIDEAK ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK

1. *Jokabide desegokiak*
2. *Bizikidetasunaren kontrako jokabideak*
3. *Bizikidetasuna larriki kaltetzen duten jokabideak*



DUNBOA HI Ikas Komunitateen Zentroko eskola-jangelak zuzeneko kudeaketa du, 2000.eko martxoaren 22ko Aginduak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuarenak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendeko herri-ikastetxeetako eskola-jangelak arautzen dituenak, II. Kapituluaren xedatutakoarekin bat.

DUNBOA HI Ikas Komunitateen Zentroko eskola-jangelak Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren Zirkularrak zehaztutako moduan funtzionatuko du. Horretan ikasturte bakoitzaren hasieran zuzeneko kudeaketa-araubidean diharduten eskola-jangelen funtzionamendurako argibideak eskaintzen dira.

I.- HELBURUAK


DUNBOA HI Ikas Komunitateen Zentroko eskola-jangela hezkuntza-zerbitzu osagarria da eta borondatez erabil daiteke; dena den, honako helburuak lortu behar dira:

1. Osasunerako hezkuntza:

- *Osasun heziketa zuzenari begira, norbere garbitasun eta elikadura zuzen ohiturak indartu.*
- *Ikasgelan landutako higiene- eta osasun-arauak praktikan jartzea.*
- *Gustu anitzak izan eta elikagai-mota guztiak jatea.*
- *Mahaiaren behar bezala eserita egotea.*
- *Janariarekin zerikusia duten tresnak behar bezala erabiltzeko ohiturak garatzea.*
- *Mahaiaren oinarriko hezkuntza-arauekin zerikusia duten ohiturak lortu eta praktikan jartzea.*
- *Ikastetxeko jangela lortutako jokabide-ereduei eta etxean mantentzen jarraitzeak duen garrantziari buruz familiak kontzientziatzea.*

2. Bizikidetzeko hezkuntza:

- *Zeregin komunetan bizikidetasun- eta kooperazio-ohiturak lortu eta praktikan jartzea.*
- *Ikasleengan kooperazio-espirtua suspertu eta, beren aukeren arabera, jangela-zerbitzuaren zereginetan nahastea: tresnak jarri eta kentzea, txikienei laguntzea...*
- *Eskola-komunitateko kide guztiekiko adiskidetasuna, errespetua eta tolerantzia sustatzea.*
- *Mahaiaren portaera egokia lortzea.*
- *Zarata handirik gabeko giroa lortu eta garrasiak saihestea; lasai hitz egitea.*
- *Erabilera komunitarioa duten lokalak, altzariak eta tresnak zaindu eta errespetatzea.*



3. Astialdirako hezkuntza:

- Astialdia behar bezala erabiltzeko ohiturak sortu eta estrategiak eskaintzea.
- Nortasunaren garapen harmonikoan lagundu eta gizarte- eta kultura-ohiturak sustatzen dituzten aisialdiko eta astialdiko jarduerak planifikatzea.

II.- JANGELAREN FUNTZIONAMENDURAKO ARAU OROKORRAK

1. Eskola-jangela irailean hasi eta ekainean amaituko da, ikastetxeko OOGk onartutako egutegiari jarraiki.

Bi eta hiru urteko ikasleak jangelan ikasturtearen hasieran programatutako moldapen-aldiak betez doazen heinean hasiko dira.

2. Jangela-zerbitzua behar duten ikasle guztiek eskabide-inprimakia bete beharko dute. Hori ikasturtearen amaieran iritsaraziko zaie. Bestela, zuzenean Idazkaritzan eska dezakete.

3. Jangela-zerbitzua ikaslearen gurasoek edo tutoreek adierazitako erakundearen kontuan ordainagiria **helbideratuz** ordainduko da. Kuota hilabete bakoitzaren 5. eta 10. egunen bitartean kobratuko da. Kuotak finkoak izango dira eta urritik maiatzera artean (8 hileko) kobratuko dira. Irailean eta ekainean ez da kuotarik pasako. Kontuan saldorik ez dutelako ordainagiria itzultzen duten ikasleek berehala gutun bat jasoko dute eta zorrak ordaindu izanaren frogagiria ekarri arte ezingo dutela jangela erabili jakinaraziko zaie. Ordainketa Idazkaritzan egin ahal izango da ere.


Helbideratu gabeko kontua: kuota eskudirutan ordaintzen duen ikasle orok hilabete bakoitzaren 10a baino lehen egin beharko du. Hala egiten ez badu, arestian aipatutako gutuna jasoko du jakinarazpen eta baldintza berdinekin.

4. Jangelako **beken** dirua derrigorrez jangela-zerbitzuaren fakturak ordaintzera bideratutako ikastetxearen kontu-korrontean sartuko da.

EJK zehaztutako taulen arabera, jangelaren BEKA jasotzeko eskubidea duten ikasleei ikasturtean zehar ez zaie kuotarik pasako.

Deialdia ebatzi ostean ikasleak beka jasotzeko eskubiderik ez balu, hileko atzeratu guztiak ordaindu beharko ditu eta une horretatik aurrera kuota helbideratu beharko du.

Kuota kobratzen ari zaion ikasleak, berriz, Hezkuntza Sailaren eskutik beka jasotzen badu, ordura arte ordaindutako zenbatekoa banku-transferentziaren bitartez itzuliko zaio eta une horretatik aurrera jangela ordaintzeari utziko dio.



5. Ordaindu beharreko zenbatekoa urtero Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak finkatzen du.

6. **Behin-behineko** ikasleak salbuespenez, egun zehatzean, jangelazerbitzua erabili behar dutenak dira. Ikasle horiei zerbitzua plaza hutsak badaude eskainiko zaie. Jangela erabili nahi dutenean, Idazkaritzan bi eguneko aurrerapenez jakinarazi beharko dute.

Bi urteko ikasleak bakarrik jankide finakoak izan daitezke.

7. Ikasleak jangelaren kuota ez ordaintzea eskola-jangelaren zerbitzuan baja emateko arrazoia izan daiteke.

Kuota ez ordaintzeagatik 10 egun baino gehiago igarotzen badira jangelara joan gabe, plazarako eskubidea galduko du eta bere tokia beste ikasle batek bete ahal izango du.

8. Zerbait itzuli behar bada, Hezkuntza Sailaren argibideekin bat egingo da. Ikasle bekadunei ez zaie ezer itzuliko.

9. Jangela-zerbitzuan **behin betiko baja** emateko ikastetxearen Idazkaritzan idazki bat aurkeztu beharko da hilabetearen 30a baino lehen. Bestela, xede guztietarako alta emana jarraituko du. Ikasturtean zehar ez zaie berriz alta emango.

10. Jangelaren ordutegia irailean eta ekainean 13:00etatik 15:00etara bitartekoa izango da eta urritik maiatzera 12:45etik 15:00etara bitartekoa. Ikasleen segurtasunerako ordutegi horretan ikastetxeko ateak itxiak egongo dira. Hala eta guztiz ere, txikientzat bi irteera-txanda zehaztuko dira. Gurasoek edota pertsona baimenduek ikasleak atean jasoko dituzte.

Programatutako jarduerak behar bezala garatzeko, biltze-ordutegiak errespetatu beharko dira. Horregatik, horien artean dagoen denboraldian, ez da ikastetxetik ikaslerik aterako, arrazoi justifikatuarengatik ez bada.

11. Menua jankide guztientzat bakarria izango da. Dena den, honako salbuespenak daude:


- **Dieta bigunak:**

Behin-behinekoz sabeleko arazoak dituzten ikasleentzat, medikuak hala aginduz gero eta egun bat lehenago jangelako arduradunari adierazi bazaio.

- **Elikagaiekiko alergia duten ikasleak edo edozein gaixotasun edo arazo somatiko dutenak, horien ondorioz elikadura berezia behar badute:**

Gurasoek edo tutoreek **eskaera-fitxa** bete beharko dute, baita espezialistak sinatutako **ziurtagiri medikoa eta akatsaz hartuz gero jardueraprotokoloa** aurkeztu ere.

Alergiak dituzten ikasleen baldintza berdinetan arrazoi "moralengatik elikagaiekiko intolerantzia duten ikasleek jangela ohiz erabil dezakete.



12. Ikasleek jangelaren denboraldian **ezingo dute** eskola-barrutitik **irten**. Hori amaitu baino lehen bila etorri behar badute, arrazoi justifikatuarengatik izango da eta ikastetxean zehaztutako prozedura orokorra jarraituko da: nork jasoko duen adierazita **aldez aurretik idatziz tutoreari jakinaraztea, NAN** edo beste agiri ofizialarekin **pertsonalki identifikatzea** eta xede horrez dagoen **erregistroa sinatzea**.

13. Jangelako ikasle finkoren batek egun zehatz batean ez badu gelditu behar, klasean egon arren; jangelako arduradunari jakinarazi beharko dio edo Idazkaritzan horren berri emango du.

14. Goizeko ikastorduetan ikastetxera bertaratzen ez diren ikasleek ezingo dute jangela-zerbitzua erabili.

15. Jangelan gelditzen diren umeei ez zaie inolaz ere **sendagairik** emango. Era berean, ez die inoiz umeei sendagairik emango. Beharrezkoa izanez gero, ikastetxera ikaslearen gurasoak edo tutoreak sartzeko izapideak egingo dira, helburua sendagaiak ematea bada. Horretarako, Zuzendaritzarekin harremanetan jarri beharko dute.

16. Hiru hilez behin eguneroko menuarekin informazio-orria entregatuko da. Hala, informazio horri esker, familiek beren seme-alabentzat dieta osoa prestatu ahal izango dute, gainerako janarietan jangelan jandakoa osatuz. Dieta berezien kasuan, informazioa hilean behin eskuratzen da.


17. Ikasle guztiek jangelako bizikidetasun- eta funtzionamendu-arauak errespetatu beharko dituzte: garbitasuna, jangelarako sarrera, elikagaien aurrean jokabidea eta ohiturak.

18. Ikasleek (bekadunek edo beka ez dutenek) jangelako funtzionamendu- eta bizikidetasun-arauak betetzen ez badituzte edo hilekoak ordaintzen ez badituzte, aldi baterako edo behin betiko jangela-zerbitzuan baja emateko aukera izango da.

19. Jangelarekin zerikusia duen edozein gai lantzeko, ikastetxearen Zuzendaritzara edo jangela-arduradunarengana jo beharko da.

III.- JANGELAREN BIZIKIDETASUN-ARAUAK

Orokorrean, eskola-jangelako jarduerak gure ikastetxeko hezkuntza-proiektuan jasotzen den Barne Araubideari buruzko Araudiaren bitartez erregulatuko dira.




Jangelaren berariazko arauak honako hauek dira:

1.- Higienea

- 1. Ikasleek (Haur Hezkuntzakoek barne) berez jaten jakin beharko dute; tresnak behar bezala erabili beharko dituzte, baita eskuak garbitu ere.*
- 2. Ikasle guztiak beren beharrak egiteko xede horrez atxikitako komunitatik pasako dira eta jangelara sartu baino lehen eskuak garbituko dituzte. Jaten ari diren bitartean ezingo dute komunera joan, gaizki sentitzeagatik edo gaixo egoteagatik ez bada. Nolanahi ere, betiere monitoreari baimena eskatu beharko zaio.*
- 3. Ikasleek ezingo dute sukaldean sartu.*
- 4. Mahai-tresnak eta ezpain-zapia behar bezala erabiltzeko arreta berezia jarriko da.*
- 5. Ezin daitezke ogia, ura edo janari-hondarrak lurrera bota, ezta ikasleen artean ere.*
- 6. Jangelatik ez da janaririk aterako.*

2.- Antolaketa eta portaera

- 1. Jangelaren orduan, beren tutorearekin eskuak garbitzeko aldez aurretik komunitatik pasa diren Haur Hezkuntzako ikasleak jangelara zuzenean pasako dira eta bertan monitoreek hartuko dituzte. Lehen Hezkuntzako Lehenengo Zikloko ikasleen bila monitoreak joango dira zikloko korridorera eta komuneko ateetara. Horretan beren beharrak egin eta eskuak garbituko dituzte, gero jangelara hurbiltzeko. 2. eta 3. zikloko ikasleak zuzenean patiora jaitsiko dira eta monitoreek komunera joan daitezkeela ohartarazi arte egon beharko dute. Ondoren, jangelan sartuko dira.*
- 2. Euria ari badu, monitoreek 3. mailatik aurrerako ikasleak ikasgelako ateetan jasoko dituzte eta ikasturte hasieran egindako plangintzaren arabera, dagokien espaziora eramango dituzte.*
- 3. Jangelara taldeka sartuko dira eta ordena eta lasaitasunez ilaran egingo dute. Ez da lasterketarik izango, ez lagunetik bultzadarik, ezta garrasirik ere.*
- 4. Ikasleak atxikitako tokietan eseriko dira, gutxi gorabeherako adin-ordenari jarraiki. Toki horiek finkoak izango dira eta monitoreen irizpidearen arabera aldatu ahal izango dira.*




5. *Material eta tresna guztiak errespetatu beharko dira eta gaizki erabiltzeagatik kaltetzen badira, ikasleak izango dira arduradunak.*
6. *Behar bezala eseriko dira, lagunak oztopatu gabe eta beren tokietatik mugitu gabe. Ezin daitezke altxa. Monitoreei deitzeko, besoa altxatuta eduki beharko dute arreta eskaini arte.*
7. *Oso garrantzitsua da giro lasai eta erlaxatuan jatea, beraz, inoiz ez dute garrasika hitz egingo; ahots-tonu egokia erabili beharko da.*
8. *Egokitzat joz gero, hezkuntza-arrazoi zorrotzengatik, ikasleek, ahal duten neurrian, jangela-zerbitzuan lankidetzan jardungo dute.*
9. *Ikasleek langileak (sukaldariak, monitoreak...) errespetatu beharko dituzte, ikastetxeko irakasleak errespetatzen dituzten bezala: esana egin eta azalpenak jarraitu beharko dituzte.*
10. *Jatez amaitzen dutenean, lasaitasunez itxaron beharko dute irteera unea adierazi arte. Irteera sarreraren modukoa izango da.*

3.- Elikadura:

1. *Ikasleek zehaztutako menura moldatu beharko dute eta plater bakoitzetik gutxieneko bat jan beharko dute (egoeren, gorpuzkera eta abarren arabera).*
2. *Elikagairen bat ezin badezakete jan, egiaztatzeko ziurtagiri medikoa aurkeztu beharko dute.*

4.- Aisialdia:

1. *Ikasle bakoitza atxikitako tokian egongo da eta monitoreak ikuskatuko du; bestela, programatutako jarduerak egingo ditu. Ikasleak baimenik gabe ez dira taldetik bereiziko.*
2. *Ezin daiteke joko arriskutsuetan aritu, hau da, pertsonen segurtasun fisikoa arriskuan jar dezaketen horietan. Borrokak saihestuko dira eta ez dira lesioak sor ditzaketen objektuak erabili edo botako.*



IV.- ZUZENDU BEHAR DIREN JOKABIDEAK ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK

1. Jokabide desegokiak

a) Monitoreen esana ez egiteagatik eta oinarrizko arauak ez betetzeagatik sortutakoak **jokabide desegokiak** dira. Hona hemen adibide batzuk:

1. Sukaldeko eta jangelako langileen argibideak ez jarraitzea.
2. Ordenarik gabe jangelan sartu edo bertatik ateratzea.
3. Gaizki eserita egotea.
4. Tokiz aldatzea.
5. Behar bezala ez jatea edo tresneria (mahai-tresnak, ezpain-zapiak...) modu egokian ez erabiltzea.
6. Elikagaiak oker erabiltzea: lurrera edo mahaira botatzea, urarekin jolastea, ogia elkarri botatzea...
7. Janaria probatzeari uko egitea.
8. Beste mahaietako ikasleekin hitz egitea, zarata ateratzea edo garrasi egitea.
9. Behar bezala ez erabiltzeagatik, jangelako materiala kaltetzea: edalontziak puskatzea, sardexkak tolestatzea...
10. Hezkuntza-komunitatearen kideen kontra begirunerik gabeko jarrera, keinu edo hitzak.


b) **Jokabide desegokiak zuzentzeko jarduerak eta zereginak:**

Jangelako langileek jokabide desegokiak zuzenduko dituzte eta, horretarako, honako neurriak hartuko dituzte:

1. Ikasleari ahoz errieta egitea eta jokabide zehatz eta ondorioei buruz hausnarketa egitea. Behin eta berriz errepikatuz gero, gurasoei idatziz jakinaraztea.
2. Nahi duen taldearekiko (edo bere jangela-mahaiarekiko) aldi batez bereiztea eta beste batean integratzea.
3. Aisialdiko joko edo jardueretan parte hartzeko eskubidea galtzea.
4. Egindako arau-haustearekin zerikusia duten zereginak egitea.
5. Kaltetutako materiala konpondu edota zaharberitzea.
6. Jangelako arduradunaren aurrean aurkeztearen agindua.

2. Bizikidetasunaren kontrako jokabideak

a) Jokabide desegokiak errepikatzea eta jangelaren ohiko funtzionamendua eragozten duten horiek **bizikidetasunaren kontrako jokabideak** dira. Halaber, monitoreekiko edota lagunekiko errespetu faltak sartzen dira. Hona hemen adibide batzuk:



1. *Jokabide desegokiarengatik hiru arau-hauste arin metatzea.*
2. *Sukaldeko eta jangelako langileen argibideak eta esanak ez betetzea, diziplina ezaren azalpenak edo adierazpen iraingarriak edo mehatxagarriak daudenean.*
3. *Adierazitako espazioetan ez egotea edo aisialdiko jardueretan taldez aldatzea.*
4. *Monitorearen baimenik gabe jangelatik irtetea.*
5. *Sukaldean sartzea.*
6. *Jangelak berezkoa duen materiala gaizki erabiltzeagatik edo nahita kaltetzea.*
7. *Asmoz janaria lagunei botatzea.*
8. *Pertsona bati indarkeria fisikoa erabili gabe eskubidea duena egin dezan saihestea edo bere borondatearen kontra zerbait egin dezan derrigortzea.*
9. *Errespetuari, pertsonen segurtasunari edo osasunari eragiten dion edozein jokabide, baita erasoaren saiakera edo mehatxu bezala zalantzarik gabe interpreta daitezkeen keinuak edo jarrerak ere.*
10. *Ordena pertsonala eta taldearena asaldatzen duten portaerak.*

b) Bizikidetasunaren kontrako jokabideak zuzentzeko jarduerak eta zereginak:

Bizikidetasunaren kontrako jokabideak zuzentzeko, zuzendariak honako neurriak aplikatu beharko ditu:


Jokabide desegokiekiko aurrez ikusitako edozein eta, gainera:

1. *Ikasleari idatziz ohartaraztea. Gurasoei jakinarazpena.*
2. *Nahi duen taldetik edo jangela-mahaitik aldi baterako edo betirako bereiztea.*
3. *Egindako kaltea konpontzen laguntzeko zereginak edo hezkuntzalanak egitea.*
4. *Zuzendu beharreko egoeratik abiatuta, hiruhileko akademikoaren amaiera gaindi ezin dezakeen denboraz eskola-jangelaren zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea.*

3. Bizikidetasuna larriki kaltetzen duten jokabideak

a) Bizikidetasuna larriki kaltetzen duten jokabideak honakoak dira: bizikidetasunaren kontrako jokabideak behin eta berriz errepikatzea eta gainerako ikasleekiko eta monitoreekiko jangelaren funtzionamendua larriki asaldatzea.

1. *Bizikidetasuna kaltetzen duten jokabideengatik hiru arau-hauste larri metatzea.*



2. Jangelaren ordutegian ikastetxetik baimenik gabe ateratzea.
3. Instalazioetan edo beste pertsonen gauzatan nahita kalteak sortzea, bai banan-banan, bai taldean.
4. Hezkuntza-komunitateko edozein kideren kontra eraso fisiko edo psikologikoa.
5. Pertsonen errespetuari, segurtasunari edo osasunari oso larriki eragiten dion edozein jokabide.

b) Bizikidetasuna larriki kaltetzen duten jokabideak zuzentzeko jarduerak eta zereginak:

Bizikidetasuna larriki kaltetzen duten jokabideak zuzendariak bideratuko ditu eta aurreko artikuluan jasotako neurri bat edo batzuk aplikatuko ditu. Gainera, honako hauek aplikatzea erabaki dezake:

1. Ikastorduetatik kanpo sortutako kalte materialak konpontzen laguntzeko zereginak edo hezkuntza-lanak egitea.
2. Ikasturte akademikoa amaitu arte jangelara joateko eskubidea etetea.